

Erraiak besteratzin

IDAZLEA ITZULTZAILEEN LANTEGIAN – 2014

Erraiak

Danele Sarriugarte Mochales

Entrañas

Miren Iriarte Oyaga

Entranyes

Esti Lizaso Lopetegi

Mes entrailles

Edurne Alegria Aierdi

Danele Sarriugarte

Erraiak

Entrañas

Entranyes

Mes entrailles

Jatorrizko izenburua: *Erraiak*. © Elkar Argitaletxea, 2014. Lehen atala.

© Danele Sarriugarte, 2014

© Elizabete Manterolak, artikulua

© Itzultzaileek, itzulpena

Diseinua eta maketa: Jose Luis Agote

ISBN: 978-84-617-5599-8

Argitaratzailea: EIZIE

Zemoria, 25

20013 Donostia

www.eizie.eus

Aurkezpena

2014ko udazkenean egin genuen *Idazlea itzultzaileen lantegian* jardueraren hamaikagarren ekitaldia. Aurreko edizioen moduan, EIZIEk antolatu zuen ekimena, Etxepare Euskal Institutuaren babesarekin. Behin idazlea eta itzultzaileak hautatuta, eta bakoitzak itzulgaia bere kasa landu ostean, urriaren 20an eta 21ean egin genuen lantegia, Donostian, eta 22an plazaratu genituen jendaurrean lantegian hizpide izan genituen arazo eta buruhaustek, eta eginiko lanaren emaitza. Bi egun beranduago, Parisen egin genuen bigarren jendaurrekoa, Sorbonne-Nouvelle Unibertsitatean, Miren Ibarluzea euskara irakurlea lagun genuela.

Danele Sarriugarte Mochalesen *Erraiak* liburuaren lehen atala izan zuten parte hartzaileek itzulgai, eta, idazlearekin batera, honako itzultzaile hauek jardun zuten Elizabete Manterolak koordinaturiko lantegian: Edurne Alegria Aierdi, frantseserako itzultzailea; Miren Iriarte Oyaga, gaztelaniarako itzultzailea, eta Esti Lizaso Lopetegi, katalanerako itzultzailea.

Lantegi hartako itzulpen-prozesuaren laburpena eta hiru itzulpenak bildu ditugu argitalpen honetan.

Presentación

En otoño de 2014 EIZIE organizó en colaboración con el Instituto Vasco Etxepare la undécima edición del taller *El escritor y sus traductores*, que en aquella edición fue *La escritora y sus traductoras*. Las participantes se reunieron

durante dos días (20 y 21 de octubre) en la sede de EIZIE para celebrar el taller, una vez realizado el primer borrador de traducción del texto seleccionado: *Erraiak* [Entrañas], de Danele Sarriugarte Mochales. Posteriormente, el 22 de octubre se celebró un acto público en la librería Garoa de San Sebastián. La edición de 2014 tuvo una segunda parte, esta vez en la Universidad Sorbonne-Nouvelle de París, en la cual se contó con la presencia de la lectora Miren Ibarluzea.

Junto con la escritora invitada (también traductora), participaron Edurne Alegria Aierdi, traductora al francés; Miren Iriarte Oyaga, traductora al castellano y Esti Lizaso Lopetegi, traductora al catalán. Coordinó el taller Elizabete Manterola Agirrezabalaga.

Presentamos en esta publicación un resumen del proceso de traducción llevado a cabo en el taller, junto con las tres traducciones del primer capítulo.

Presentació

A la tardor del 2014, l'EIZIE va organitzar, amb la col·laboració de l'Institut Basc Etxepare, l'onzena edició del taller "L'escriptor i els seus traductors", o en aquella edició, més aviat, "L'escriptora i les seves traductores". Les participants es varen reunir durant dos dies (20 i 21 d'octubre) a la seu de l'EIZIE per dur a terme el taller, amb l'objectiu de treballar sobre un primer esborrany prèviament preparat de la traducció del primer capítol de la novel·la *Erraiak* [Entrañes], de la Danele Sarriugarte Mochales. Posteriorment, el 22 d'octubre, es va celebrar un acte públic a la llibreria Garoa de San Sebastià, per presentar els fruits que havia donat el taller tot exposant els problemes i criteris de tra-

ducció que s'havien treballat.. L'edició del 2014 va tenir una segona part, aquest cop a la Universitat Sorbonne-Nouvelle de París, on també hi va participar la lectora de basc Miren Ibarluzea.

Juntament amb l'escriptora convidada (també traductora), varen treballar l'Edurne Alegria Aierdi, traductora al francès; la Miren Iriarte Oyaga, traductora al castellà; i l'Esti Lizaso Lopetegui, traductora al català. Les tasques de coordinació del taller van anar a càrrec de L'Elizabete Manterola Agirrezabalaga.

En aquesta publicació presentem un resum del procés de traducció portat a cap al taller i les tres traduccions resultants del primer capítol d'*Erraiak*.

Présentation

À l'automne 2014, l'association EIZIE a organisé, en collaboration avec l'Institut Basque Etxepare, la onzième édition de l'atelier « L'écrivain et ses traducteurs », qui en l'occurrence, étaient toutes des femmes, le titre de l'atelier devenant dans ce cas « L'écrivaine et ses traductrices ». Les participantes se sont réunies pendant deux jours (les 20 et 21 octobre) au siège de l'association, pour exposer respectivement leur première version de la traduction du texte choisi dans le roman de Danele Sarriugarte Mochales, intitulé *Erraiak* (Mes entrailles). Le 22 octobre, elles ont présenté leur travail définitif au cours d'une réunion publique, à la librairie Garoa de Donostia. Puis, une deuxième présentation a eu lieu à l'Université Sorbonne-Nouvelle de Paris, avec la présence de la lectrice Miren Ibarluzea.

Outre l'auteure invitée (elle-même traductrice), ont pris part à cet atelier Edurne Alegria Aierdi, traductrice de la

version française ; Miren Iriarte Oyaga, chargée de la version espagnole et Esti Lizaso Lopetegi, auteure de la version catalane, la coordinatrice de l'atelier étant Elizabete Manteola Agirrezabalaga.

Cette publication retrace, sous forme de résumé, le processus de traduction mis en œuvre dans cet atelier, ainsi que les traductions du premier chapitre de *Erraiak*.

AURKIBIDEA

<i>Erraiak</i> besteratzeko saiakeraz	9
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA	
Erraiak	31
DANELE SARRIUGARTE MOCHALES	
Entrañas.....	47
MIREN IRIARTE OYAGA	
Entranyes.....	63
ESTI LIZASO LOPETEGI	
Mes entrailles.....	79
EDURNE ALEGRIA AIERDI	

Erraiak besteratzeko saiakeraz *

Idazlea itzultzaileen lantegian 2014



Elizabeth Manterola Agirrezabalaga

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Elizabeth Manterola Agirrezabalaga. Itzulpengintzan dokto-
rea, erdaratutako euskal literatur lanen inguruko tesiarekin. ELI
(Euskal Literatura Itzulia) izeneko katalogoaren sortzailea da.
Egun, EHUn dihardu itzulpengintza-irakasle.

* Artikulu hau *Senex* aldizkariaren 47. zenbakian ere argitaratu da.

Erraiak besteratzeko saiakera

Euskaraz idatziriko literatur lan bat hartu, haren mamia-ri, azalari eta hezurrei erreparatu, erraietaraino aztertu, eta beste hizkuntza batzuetara itzultzen saiatzea du helburu ekimenak, irakurleak jakingo duenez. Eta hamaikagarren saiakera izan zuen narrazio honek hizpide duen ekitaldiak, hamaika idazle eta hamaika testu mota erdaratzeko ahale-ginean, itzultzaileen lana bultzatu eta erdaretarako bidea urratzeko asmotan. *Erraiak* izan zen 2014ko *Idazlea itzultzaileen lantegian* ekimeneko itzulgaia, eta Danele Sarriugarte Mochales, idazle gonbidatua. Idazle ez ezik, baita itzultzaile ere. Izan ere, euskaraz idatziriko testua itzulpen mintegirako gaztelaniara itzultzeko saiakera egin nahi ote zuen galdetu genion, eta baiezkoa eman zigun.

Sarriugarteren bidaide izan ziren Edurne Alegria, Miren Iriarte eta Esti Lizaso itzultzaileak; lehenengoak frantseserako itzulpena egin zuen; bigarrenak, gaztelaniarakoa, eta hirugarrenak, berriz, katalanerakoa. Mintegiaren aurreko ekitaldietan, nor bere ama hizkuntza izan du xede gehien-gehienetan. Oraingoan, ordea, nahiz eta euren eguneroko hizkuntza izan xede hizkuntzak, alderantzizko norabideari heldu diote itzultzaileek.

Aurreko bi ekitaldietan bezala, Etxepare Euskal Institutuaren laguntza izan zuen EIZIEk 2014ko *Idazlea itzultzaileen lantegian* antolatzeko. Euskal Herritik kanpoko sus-
tapena helburu, mintegia lehenik Donostian egin genuen,

urrian, eta Garoa liburu-dendan aurkeztu genuen, segidan. Bigarren aurkezpena egiteko, Parisko Sorbonne Nouvelle Unibertsitatera jo genuen. Miren Ibarluzea euskal irakurlearen laguntzaz, katalaneko ikasleekin itzulpen mintegitxo bat egiteko modua izan genuen lehenik, eta, jarraian, euskal itzulpengintzari buruzko jardunalditxo batean aurkeztu genituen bai itzulgaia eta baita itzulpen mintegiak emandakoak ere.

Puzzlearen osaera

Ez da erraza izaten euskal kultura edo literatura sustatzeko programak diseinatzea. *Idazlea itzultzaileen lantegian* tailerrari dagokionez, lehenik, itzulgaia hautatu behar da. Erdaratu gabeko lan bat topatzea da helburu, bi-hiru eguneko itzulpen mintegi batean lantzeko moduko zailtasunak izango dituen, luze-laburretan ere egoki beharko lukeena. Ahal dela, aurreko ekitaldietan landutako testuekin alderatuta berritasunen bat ekarriko duena, dela generoari, dela tonuari, dela gaiari dagokiona. Horretaz gain, idatzi duenarekin ere hitz egin behar izaten da, itzulpen mintegian parte hartu nahi ote lukeen galdetzeko. Behin horiek erabakita, zer hizkuntzataraz itzuli nahi dugun edo itzultzea komeni den ikusi behar izaten da. Itzultzailerik ba ote den xede nahi dugun hizkuntza horretan. Horiek guztiak lotu ostean, egutegiari begira jarri behar. Izan ere, ez da erraza lau-bost pertsonako taldeak udazkeneko aste buruzuri batean lanerako biltzeko modua izatea. Lantegia non egin eta lantegiaren emaitza non eta noren aurrean aurkeztu pentsatzea ere garrantzitsua da. Etxepare Euskal Institutuaren laguntzak itzulpen mintegia Euskal Herritik kanpo aurkezteko parada ematen digu, eta ongi finkatu behar dira helburuak horretarako.

2014ko edizioan, euskal letretara iritsi berria zen idazle bat hautatu genuen mintegirako. Idatzi zuen *opera prima* nahiko berritzailea begitandu zitzaigun idazkera eta estilo aldetik; hala erakutsi du ondoren izan duen oihartzunak ere. Liburua argitaratu berria zela, esku artean hartu eta mintegirako moduko atal egoki baten bila jo genuen. Hautaturiko nobela zatiak itzultzaileei buruko min bat baino gehiago emango zuela pentsatu genuen, zer landua izango genuela tailerrean.

Danele Sarriugartek itzulpengintza eta interpretazio ikasketak eginak ditu, eta, alde horretatik ere, interesgarria iruditu zitzaigun mintegirako. Izan ere, idazle larruan sartu aurretik —jendaurrean behintzat—, itzultzaile aritua baitzen profesionalki. Mintegian parte hartu nahi ote zuen galdetu genionean, proposamen bikoitza egin genion: idazle gisa eta autoitzultzaile gisa parte hartzekoa. Eta halaxe onartu zuen Sarriugartek; hautatutako laginaren gaztelanirako itzulpena egingo zuela mintegirako, langai gisa ekarriko zuela. Modu horretan, itzultzaileei gertuagotik laguntzeko egokiera izango zuela.

Xede hizkuntzak zehazteko, aurreko urteetako mintegietako hizkuntzei eta itzultzaileei erreparatu genien, eskema bera ez errepikatzeko eta berrikuntzaren bat sartu asmoz. Hasiera batean, japoniera izan nahi genuen xede hizkuntzen artean. Izan ere, garai hartan Nami Kaneko Donostian egonaldia egiten ari zela baliatuta, guztiontzako aberasgarri izan zitekeen lantegiari orain arte landu gabeko xede hizkuntza bat gehitzea. Alabaina, agenda eta egutegi kontuak tarteko, ez zen posible izan halakorik, eta, ondorioz, gertuagoko beste hizkuntza batzuk lantzea aurreikusi genuen: gaztelania, frantsesa eta katalana, hain zuzen ere.

Hiru xede hizkuntza baina lau itzulpen izango genituen, hartara, Sarriugarteren autoitzulpena kontuan hartuta.

Sarreran aipatu dudan moduan, Edurne Alegriak osatu zuen frantseserako itzulpena; Miren Iriartek, gaztelaniarakoa; eta Esti Lizasok, katalanerakoa. Euskara dute hirurek ama hizkuntza. Iriarteren kasuan, gaztelania ere bada itzultzailearen ama hizkuntza; noski, elebitasunaren ajeak. Frantsesari dagokionez, berriz, ez da Edurneren ama hizkuntza, baina itzultzaileak gaztetatik ezagutzen du hizkuntza hori, frantsesez jaso baitzuen formakuntza, eta eskarmentu handia du hizkuntza horretarako itzulpenean. Katalanaren kasuan, Lizasok unibertsitate garaian ikasi zuen hizkuntza. Egun, Katalunia du bizileku, eta guztiz murgilduta bizi da katalan kulturaren eta hizkuntzan. Itzultzaile profesionala izanagatik ere, orain artean ez du katalana xede hizkuntza gisa landu profesionalki. Lehen saiakera izan da, hortaz, Lizasorentzat, alderantzizko itzulpenean.

Mintegia abian jarri aurretik, prozesuak emango zuenari buruzko lehen galderak buruan bueltaka ari zitzaizkigun. Alde batetik, hizkuntza erromanikoak izanik xede hizkuntza guztiak, antzerako zailtasunak izango ote zituzten itzultzaileak? Bestalde, bi hizkuntza hegemoniko (gaztelania eta frantsesa) eta beste bi gutxitu (jatorrizko euskara eta katalana) genituen esku artean; izango al zuen horrek eraginik? Itzulgaiaren estiloak eta gaiak izango al zuen itzultzaileen lanean eraginik?

Puzlea osatu berritan, kartelaren emetasunak piztu zizgun arreta, eta gure artean erdi bromatan aipatu genuen kontua. Izan ere, idazlea, itzultzaileak eta antolatzaileak, guztiak ginen emakumezkoak. Garrantzirik gabeko detalea ematen du; itzulpengintzaren egungo joeren erakusgarri, nolabait esateko. Baina lantegiari begira inolako eraginik

izan beharko ez lukeen detaile soil iruditzen zitzaiguna buruhauste bihurtu zen lantegiaren zabalkundea egiterakoan. Euskaraz sortu genuen ekitaldiaren berri ematen zuen kartela, ohiko moduan, eta hor ez genuen inolako arazorik izan, jakina. Baina mintegiaren berri gaztelaniazko komunikabideetara ere bidali ohi da, eta hor etorri ziren lehenengo arazoak. *Idazlea itzultzaileen lantegian* horren ordaina *El escritor y sus traductores* izan da aurreko edizioetan. Hau da, generikoa erabili izan da bai idazleari eta bai itzultzaileei erreferentzia egiteko. Generiko horren beharrik, baina, ez zen 2014ko edizioan; izan ere, *La escritora y sus traductoras* formula erabilita, parte-hartzaile guztiak barne hartzen dira, hots, hori litzateke formarik egokiena. Baina orain artean izaniko erreferentzialtasuna ezabatu egiten da, nolabait, izenburu orokorrari eginiko aldaketa horren bitartez. Pariserako aurkezpenari begira ere, ohikoa dugun *L'écrivain et ses traducteurs* horren ordez *L'écrivaine et ses traductrices* jarri behar. Nahaste-borraste horren erdian, mintegiari buruz mintzatu nintzaion lagun galiziar batek galde egin zidan nola deitzen ote genion mintegiari ingelesez. EIZIEren webgunean begiratu, eta honako honekin egin nuen topo: *The writer and his translators*. Badugu, bai, zer aldaturik hor ere.

Laburbilduz, euskaraz arazorik eman ez digun ekimenaren izenburua bada arazo beste hainbat hizkuntzatan. Hain zuzen ere, gerora lantegian hitzetik hortzera izango genuen generoaren kontua.

Itzulgaiaren bereizgarriak

Erraiak liburuaren argitalpenak zeresan handia sortu zuen 2014ko udaberrian, aurkeztu berritan. Igartza saria testu

lagin baten arabera ematen denez, normala izaten da idazle hasiberriak zer-nolako liburua osatuko duen ikusmina sortzea, baina esango nuke irakurleen artean jakin-min handia piztu zela zer-nolako eleberria onduko zuen Sarriugartek. Eta eman zuen zeresana eleberriak; liburua argitaratu berritan, hautsak harrotu zituen, bai zenbait gairen lanketa gordinak, bai idazleak zerabilen estiloak ere.

Bikote harreman baten hausturatik abiatzen da eleberria, eta argumentua narratzailearen gorabehera sentimentalen azalpenean oinarritzen da. Narratzailearen ahotsa da, hain zuzen ere, diskurtsoaren ardatz nagusia. Aho-bilorik gabe plazaratzen ditu egungo gizarteari buruzko hausnarketa, kritika eta galdera deserrosoak.

Autoreak eleberrian darabilen hizkuntzari erreparatuta, esaldi luze eta korapilatsuekin egingo du topo irakurleak, euskarazko ohiko sintaxitik haratago. Hori horrela izanik, sarritan, esaldien luzerak berak edo esaldien ordenak buruhaustek sortuko dizkio bai irakurleari eta baita itzultzaileari ere. Horretaz gain, hizkuntza baliabideetan aberats da testua. Badira, besteak beste, errepikapenak eta onomatopeiak, badira berariaz asmatu edo garaturiko hitzak, eta aipatzekoa da aditz trinkoen erabilera ere.

Nabarmenezkoa da liburuaren egitura. Atalen izenburu gisa, zenbakiak baliatu ditu idazleak. Eta zenbaki horiek denborari egiten diote erreferentzia. Oraina 0 gisa harturik, atzera begirako gertakariak denboran gertuago (-1) ala urrunago (-3) kokatzen ditu. Atal arruntez gain, amaierako oharra ere gehitu ditu Sarriugartek, narrazioa osatzeko, izan hausnarketa sakonagoak eskaintzeko, izan azalpen gehigarriak txertatzeko.

Zailtasunak erdaratze prozesuan

Mintegian bildu ginen unetik, testuaren itzultze prozesua nekeza izan zela azpimarratu zuten itzultzaileek. Oso lanke-ta aktiboa egin behar izan zutela adierazi zuten, eta hainbat konturi buruzko hausnarketa konplexua izan zela. Baziren itzulgai osoari begira hartu beharreko erabaki orokorrak, esaldiz esaldiko lanketari heldu aurretik hausnartu beharreko kontuak. Testuaren tonua, esaterako. Hasiera-hasieratik landu behar izan zuten itzultzaileek kontu hori, xede hizkuntzan tonuarekin asmatzea ez baitzen nolana hiko erronka. Behin hori hartuta, itzulpen prozesuaz disfrutatu egin dutela aipatu zuten Iriartek eta Lizasok.

Sintaxiari dagokionez, berriz, Sarriugartek euskal literaturan ohikoa ez den sintaxia darabil; esaldi luzeak osatzen ditu, orrialde beteko esaldiren bat tarteko. Noski, euskararako itzulpenak egitean, halakoekin sarritan egiten dugu topo itzultzaileok, eta ohituta gaude esaldi luzeak euskarara ekartzeko konponbideak bilatzen. Baina ez kontrako noranzkoan. Hau da, kasu honetan, zaila izan zen esaldi luze horiekin ohiturik dauden hizkuntzetara euskarazko sintaxi konplexu hori itzultzea. Erreferenteak topatu behar izan zituzten itzultzaileek, esaldiari buelta eman, eta ordena atzekoz aurrera bildu, elementuak tokiz aldatu. Esaldi luze horiek xede hizkuntzetako ohiko esaldien formatura eramatea izan zen zailtasun nagusia; hain zuzen ere, xede hizkuntzak berea duen erritmoan txertatzea.

Esaldi osaketa konplexu horrek eleberriaren protagonistaren pentsatzeko modua islatzen du, ideia batetik besterako joan-etorriak, gaien arteko loturak, emozioak erakusteko modua. Nabarmena da edukiaren eta formaren arteko koherentzia, pentsamendua zein ongi dagoen islatuta ikusita. Lotura hori xede testuetan bilatu beharrak ere ekarri die

itzultzaileei buruko minik; izan ere, testuak xede irakurlearen izango zuen efektua izan dute ardura itzultzaileek.

Lizasok aipatzen zuenez, bestalde, bere kasuan bazen kontuan izan beharreko zailtasun gehigarri bat. Xede hizkuntza ongi asko menperatu arren, katalana ez du ama hizkuntza, eta itzuliriko testua xede irakurleak katalanezko testu arrunt modura irakurtzea erronka izan zen berarentzat. Naturaltasunaren mesedetan, zuzentzaile batekin elkarlanean aritu zen, ahalik eta xede testu egokiena sortze aldera.

Dena den, azpimarratzeko moduko arazo nagusia generoa izan genuen. Lehentxeago aipatu dugun moduan, mintegiaren izen generikoak badu mamia, eta ondo asko erakusten du euskaraz generorik zehaztu behar ez diren kasuak arantzatsuak direla generoa nahitaez zehaztu behar den hizkuntzetarako itzulpenak egitean. Mintegiko itzulgaiari dagokionez, landu genituen hiru hizkuntza erromaniakoetan zehaztu egin behar izan zen nahitaez euskaraz halakorik egiten ez zen kasuetan. Konparazio batera: *zerbitzari* hitzarekin, erabaki egin behar izan zen *la camarera* ala *el camarero* jarri behar ote den; berdin, *banatuak*, *lagunak* eta abar aipatzen direnetan. Kasuan kasu, konponbide bat baino gehiago izan dezakegu, eta testuinguruari erreparatuta egokiena iruditzen zaiguna hautatu beharko litzateke. Begira dezagun, esaterako, honako esaldi hau:

Eta zein eramango dut derrigorrezko familia-otorduetara, debekaturik daude-eta zifra bakoitiak, soilik umeak barenan hartzen dituzten multzoen kasuan dira hiruak zilegi baina hor ere gero eta gutxiago (noizko bikotetxoa?); eta **alargunen** kasuan agian batak, baina hor ere gero eta gutxiago, bestela begiratu **dibortziatuen** aurrekariari, horiei kasik ofizialki debekatu diete jada axaleko bakartasuna,

behin **ezkontidearen** uhaletik libratu direnean, baimena dute tarte batez aske arnasa hartzeko, baina ez luzaroei, asko jota urtebetea joan denean izan bitez postmodernoak eta liberatuak, jauzi egin bezate ohez ohe, eguberrian hurbil bedi mahaira garaian garaiko **amorantea**.

Xede hizkuntzetako konbentzioen arabera, beltzez azpimarraturiko hitzen generikoa maskulinoz osatu ohi da, gizon multzo bat zein gizon eta emakume multzo bat izendatzeko. Emakumez soilik osaturiko taldeetan besterik ez genuke erabiliko feneminoa. Politikoki zuzena izan nahi duen azkenaldiko joera bati jarraikiz, konponbidea izan liteke maskulinoa eta femeninoa biak aipatuz bilatzea generikoa: *en el caso de los viudos y las viudas*. Dena den, ez dirudi irtenbide egokia esaldi honetarako, testuaren erritmoa puskatuko bailuke. Aktibista feministen baitan erabiltzen den beste bide bat ere balia liteke, eta generikoa femeninoan erabiltzeko hautua egin. Modu horretara, *alargunak*, *dibortziatuak*, *ezkontideak* eta *amoranteak* guztiak jarri beharko liriateke femeninoan, baina irakurleak argi ikusi beharko luke generikoa dela idazlea baliatzen ari dena, hau da, gizonak zein emakumeak hartzen dituela bere baitan femenino horrek; bestela, jatorrizkoaren bestelako testu bat sortuko genuke semantikoki.

Begira dezagun zer gertatzen den esaldi honetan ere:

Zer esan behar diet nik orain nire **epaile guztiei**, **nire juje zorrotzei**: **gurasoei**, **kuadrillakoei**, **herriko besteei**; (...)

Aurrekoaren antzerako kasua dirudi. Generikoan erabiltzen diren elementuek zerrenda bat osatzen dutenez, femeninoa eta maskulinoa bi-biak erabiltzea ez litzateke egokia erritmoa errespetatze aldera. Demagun *gurasoak* generiko modura itzuli nahi dugula. Frantsesez, ez genuke

arazorik, *parents* hitzak aita zein amak biltzen baititu. Baina, gaztelaniaz eta katalanez, generikoa *padres* eta *pares* da. Hortaz, guztiz eraldatu eta *madres* zein *mares* modura itzuliko genuke? Horrek, ordea, irakurleen iruditerian ez ditu guraso guztiak biltzen, ezta?

Erraiak liburuan, edukiak kontatzen duena oso kontzientzia piztaile da; esan liteke hausnarketa feministak testuaren ardatz direla. Horretaz gain, formak ere garrantzia du idazlearentzat, eta hori nabaria da haren estiloan. Hortaz, generoaren auzia konpontzeko aukerak bilatzea izan zen mintegiaren hasierako eztabaidaren muina. Batetik, Sarriugarte bera femeninoa generiko modura erabiltzearen alde azaldu zen, hiru xede hizkuntzetan. Izan ere, horrek edukia eta formaren arteko oreka mantentzeko bidea emango lioke. Alabaina, Alegriak aipatu zuen xede hizkuntzetan diskurtso feministek duten indarra ez dela parekoa eta efektu arraroa sor lezakeela; frantsesez, esaterako. Guztioak ados agertu ginen kasu generikoa femeninoan jartzea ez legokeela maskulinoaren pare. Izan ere, borroka bat dago egiteke; araua ez dago onartuta maila berean, eta irakurlea ere ez dago horretara ohituta. Hori horrela izanik, halako testu batek irakurketa kontzientea behar du, eta xede irakurleak arazorik gabe harrapatu beharko luke femeninoak duen erabilera generikoa. Ongi aztertu beharko litzateke, gainera, xede hizkuntzetan zenbateraino dagoen errotuta diskurtso feminista berritzaile hori, zenbateraino erabili den femeninoa generiko gisa eta zenbateko onarpena duen. Konponbide posibleen artean, hitzaurre bat gehitzea aipatu zen, generikoa femeninoan erabili dela ohartarazteko. Baina horrek indarra kenduko lioke testuari; derrota onartzea litzateke, zuzenean.

Luze eztabaidatu ostean eta mintegiaren iraupen mugatua tarteko, irtenbide egokirik topatzeko modurik ez genuen egin. Ez behintzat bi eguneko mintegian gaiari buruz behar duen sakontasunez patxadaz eztabaidatzeko. Erabaki potoloegia zen, eta gainerako itzulpen arazoan lanketari itzal handiegia egiten zion. Hori horrela izanik, xede hizkuntzetako ohiko konbentzioei jarraitzearen alde egin genuen une hartan. Handik aterako zen emaitza ez zela behin betikoa izango jakinik, baizik eta gerora landu beharreko erabaki baterako abiapuntu, har bitez mintegian sorturiko testuak itzulpen tailer baten emaitza gisa, eta ez *Erraiak* eleberriaren lehen atalaren behin betiko itzulpen modura.

Ezin uka liteke itzulpen prozesu batean galerarik izango ez denik. Hau da, hizkuntza batetik besterako bidean, izango da ezabatu beharreko elementurik, mantendu ezin den hitz jokorik edo erreferentzia kulturalik. Galera horiek, baina, mailakatu egin daitezke, eta saiatu behar dugu ahalik eta gutxien ukitzen benetan garrantzitsuak diren elementuak. *Erraiak* eleberriaz ari garelarik, erritmoa eta musika testuaren bi ezaugarri nagusi ditugu, bi elementu guztiz garrantzitsu idazlearentzat berarentzat. Eta horiek xede hizkuntzetan kostatuta ahala kostatuta mantentzeko nahia erakutsi zuen mintegian Sarriugartek; libre jokatzeari hobesten du musikalitatea lortzeko helburuz. Zentzu horretan, hitzen hautaketa ere soinuaren arabera egiten duela aitortu zigun, musikalitatearen mesedetan. Eta, itzulpenetan bi sinonimoren artean zein hautatu erabakitzeko, hitz horien musikalitatea izan zen erabiliriko irizpideetako bat. Hitzen aukeraketak indar handiko esaldiak lortzera eramaten du: *oldarraren hondarretatik zerbait eraiki* esaldia, adibidez, fonetikoki oso indartsua da, eta zaila da itzulpenetan pareko zerbait lortzea esaldi horren ordain gisa. Hori dela eta,

konpentsazioa bilatzea zilegi iruditu zitzaigun; testuaren atalen batean emaitza ahulagoa lortuz gero, indargunea beste nonbait bilatzea, alegia.

Erritmoari dagokionez, berriz, testuaren trinkotasuna eta bizitasuna lehentasun dira Sarriugarterentzat. Hala, erritmoak eta semantikak talka eginez gero, zalantza piztu zitzaigun honako pasarte honetan konponbidea nola bilatu: *azal-puska txikiak narritatu, altxatu eta lurrera erori arte*. Izatez, azal-puska txikiak altxatu egiten dira, azala bera narritatu eta gero. Dena den, azalpena zentzua errespetatuz egiteak asko luzatuko luke esaldia. Hortaz, zer egin? Zer da garrantzitsuagoa? Hasiera batean behintzat, idazleak nahiago izan du inkongruentzia bere horretan utzi eta hau-tu estetikoaren alde egin.

Hizkera bihurritzen eta behartzen ederki moldatzen dela erakutsi du idazleak *Erraiak* eleberrian, bai eta hitz berriak sortzen abila dela ere. Euskarak ematen dio horretarako aukera, malguagoa baita, tradizio literario handiagoa duten hizkuntza batzuekin alderatuta. Hortaz, euskaraz eraiki dituen zenbait esaldik ez dute pareko formulaziorik izan itzulpenetan, zurrunagoak baitira zenbaitetan. Hori horrela izanik, konpentsazioa bilatzea izaten da egokiena, hau da, leku batean galtzen dena aurrerago berreskuratzea. Azken batean, testua osotasun gisa lantzea da egokiena. Esaldi honetan, adibidez, *hotza azazkaletaraino sartzea* esamoldea arraroa izan daiteke euskal irakurlearentzat, idazlearen asmazioa den heinean, baina gaztelaniaz *el frío se me ha metido hasta las uñas* irakurtzea oraindik eta arraragoa egingo zaio erdal irakurleari, *meterse el frío en los huesos* esamoldearen oihartzuna etorriko baitzaio ezinbestean.

(...) komuneko kanila madarikatuaren zarata itotzen saia-
tzera joan naizenean luzeegi ukitu dutelako elkar oinaz-
piek eta zeramikazko lauzek eta azazkaletaraino sartu
zaidalako hotza.

[ES] (...) *cuando he ido a intentar ahogar el sonido del
maldito grifo del baño las baldosas de cerámica han estado
en contacto con mis pies durante demasiado tiempo y el
frío se me ha metido hasta las uñas.*

[CA] (...) *quan he anat al lavabo per intentar ofegar el
soroll de la maleïda aixeta, les plantes dels peus han estat
massa temps en contacte amb les rajoles de gres i el fred
m'ha entrat fins les ungles.*

[FR] (...) *car le froid m'a pénétrée jusqu'au bout des on-
gles, suite au contact trop prolongé de la plante des pieds
avec les carreaux de la salle de bains, quand j'y suis allée
pour essayer de noyer le bruit de ce maudit robinet.*

Esamoldearen pisuaz eztabaidan aritu ostean, baina, atzean duen irudiari erreparatu genion, eta azazkalen eta hezurren artean aldea badela ondorioztatu: lehenengoaren kasuan, oinak daude hotzak, hanka-azpitik baitatorkio hostasuna pertsonaiari; hezurak aipatuta, ordea, gorputz osora igaro da hotza. Azalpen hori kontuan izanik, lehenengoaren aldeko hautua egin zuten itzultzaileek.

Antzerako beste kasu bat ere izan genuen esku artean. Honako adibide honetan, esaterako, aipatzen da uhin kiribilduetatik iritsiko zaiola protagonistari Z-ren erlatsa. Baina, izatez, uhinak ez dira kiribilduak, baizik eta kable kiribilduetan iristen zaizkigu. Idazlearen arabera, kiribilduaren ideia hori, irudi hori, mantentzea garrantzitsua iruditzen zaio, eta, horretarako, uhina sakrifika liteke, xede testuetan ongi geratzen ez bada.

hortaz, Z-ren erlatsa iritsiko balitzait berriz ere **uhin kiribilduetan barrena**, kanpotik barrura astinduko ninduke, bost minutuko elkarrizketa ortopedikoaren ostean ordu erdiz etzan beharko nintzateke –gutxienez– ohean mugitzeke,

Idazleak eleberrian darabilen beste baliabide bat hitz berriak sortzea da. Euskarak ematen du halakoak egiteko aukerarik, atzizkiak baliatuz izen batetik aditzak sortu edo aditz batetik izenondo berriak asmatzeko: *zakilkatu*, *eztarritasun*, *txortagarri*... Baita beste hainbat hizkuntzatako hitzak geureratuz ere: *singletasun*.

Kultur erreferentziaz beteta dago *Erraiak* eleberria. Idazle, musikari zein liburu ugari aipatzen da, eta aipatu gabeko oihartzunak ere ageri dira. Badu indarra intertestualitateak liburuan. Itzultzailearen zeregina halakoak identifikatu eta xede irakurleari gerturatzea izango da, jakina. Euskal erreferentzien kasuan, ongi aztertu behar da testuan duten pisua zenbaterainokoa den eta xede irakurleentzako ezagunak diren ala ez, eta horren arabera bilatu halakoak mantentzeko bideak. Itzuli dugun laginean, Hertzainak taldearen abesti baten zati bat ageri da. Pasarte honetan, hain zuzen ere:

Asteburu luze batetik iritsi berri naiz, sortzen ikusi ninduen herritik ontzen lagundu nauen hirira, eta mahai gainean izkiriaturik aurkitu ditudan agur hitzei tinko beha nago, azkenengo ikasturtean egunerokotasun arruntenean nozitu nauen gizonaren eskumutur iletsu, sendo eta dardartiak berridatzi ditu, talde mitiko bati ostu: *maitia lehen baino lehen aska gaitazan*.

Esaldi horrek zailtasun bat baino gehiago planteatzen du: batetik, argitu behar al zaio irakurleari zein den talde

mitikoa? Euskal irakurleak badaki zein den abestia, eta ia ziur jakingo du zein den taldea ere. Abestiaren parte den esaldi hori, berriz, itzuli egin behar al da? Kontuan izan behar da zerikusia duela testuan gertatzen ari denarekin. Abestiak esaten duena idatzi baitu pertsonaiak. Hortaz, baliteke hobe izatea esaldia itzultzea, ahalik eta informazio gehien emateko xede irakurleari. Beste aukera bat genuke testu zati hori euskaraz uztea. Hala eginez gero, oin-ohar bat gehitu beharko litzateke, edo azalpen esaldi bat txertatu, bestela, testuan.

Kultur erreferentziekin jarraituz, beste pasarte honetan, whiskia eta patxarana aipatzen dira, parez pare. Xede irakurleentzat, bigarrena ez da izango ezaguna; hortaz, zer egin? Patxarana bere horretan mantenduta ere, testuinguruak lagundu egingo dio irakurleari, eta, whiskiaren segidan ageri denez, erraz ondorioztatuko du edari alkoholodun batez ari dela idazlea.

Bestalde, whiskia edo **patxarana**, alkohol bernizatua edateko apetak jota banengo, edalontziak kubo astuna beharko luke, hormak finak eta erraboilkarak izanagatik oin lodikote eta pisukoa; dena dela, eskuan daukadana ez da ez bata ez bestea, ez da ez dotorea ez handinahia, ez-pada arrunta eta arina, polibalentea, txosnetako plastiko gogorrezko baso klasikoa, gau ilunetan bularra protesta-pegatinaz lepo, zurito zein kaña zein kubata eskatzea ahalbidetzen dizuna, ikasle (eta ez hain ikasle) pisuetan hainbestetan berrasmatua hortzetako eskuilei edo lan-mahaiko boligrafoei ostatu emateko, nik neuk beti erabili izan dudana etxean likoreekin lasai mozkortzeko, gutxiagotan derrigortzen zaituelako edalontzi hustua bete-tearen eginbehar nekezera trago oparoka diharduzunean ere, batez ere izotz gutxi botatzeko tentua hartzen baduzu; **vollidamma** zuzenean latatik hartzea erabakitzearen antze-

koa da estrategiaren ikuspuntutik, basora trakeski isuri eta aparra baretu arte itxaron beharrean kolpe batez barnera dezakezulako 33 zentilitroen lehen erdia, eta beste kolpe batez barruan gelditu dena, latak ondo tolestuta poltsan inkognitoan atera ditzakezulako apartamentuan lego-keen beste inor ohartzeko astelehen buruzuriz zeure gelan bakar-bakarrik zurrutean ari zarenez arazo bat daukazu-la pentsa ez dezan (...)

Patxaranaz gain, zerbeza marka bat ere aipatzen da, oso ezaguna, bai euskal, bai espainiar eta bai katalan irakurlearentzat; ez, baina, frantses irakurlearentzat. Hori dela eta, bi konponbide aipatu zituen Alegriak: batetik, Frantzia Voll-Damm markaren pareko litzatekeen zerbeza marka bat bilatzea, hau da, alkohol altuko zerbeza ezagun bat; bestetik, *zerbeza* hitz generikoaz ordezte. Biek ala biek, pertsonaiak bere etxeko gelako bakardadean zerbeza latatik edateko efektua biltzen dute.

Itzultzaileek esku artean zuten laginaren zati gisa, eleberraren amaieran Sarriugartek gehituriko ohar bat ere itzuli behar izan zuten: liburuko protagonistak kakari buruz egitako hausnarketa, hain zuzen ere. Gaiaren gordinak baino, zehatzapen linguistikoez sorrarazi zizkieten itzultzaileei buruhaustek, kasu honetan. Ikus dezagun pasartea:

Haren [Pynchonen] *Gravity's Rainbow*ri Pulitzerra erre-fusatu zioten-eta, epaimahaiaren sentiberatasun iraindua argudiatuz, dirudienez, arazo behinena Pudding brigadierren eta Katje Borgesiusek artean gertatzen den **gorzaletasun** eszena izan zen arren (**latinkada** nahi duenarentzat **koprofilia**, eta hemen erabat egitakiak eta zehatzak izateko kasu honetan **cophrophilia** izango zen epaimahaikideek Pynchoni saria eskuetatik erauzteko aitzakia gisa baliatu zuten kontzeptua, hala ere **zeinek nahi ditu latinkadak eus-**

kararen kakari-kaka-deitzeko-gaitasun paregabea izanik, filia horren objektua, kasu, lehen begi-kolpean ulertzen du edonork zehazkik gomendatu didan gorotzaletasun miragarri horri esker), sexu-eszena luze bat non Katjek Pudding zaharraren gorputz horituan plazer sadikoz ebatkitzen dituen askotariko zaurien azken ukitu klimaxtikoa zuzenean Pudding zaharraren ahora kaka egitea den, hark osorik murtxikatu, irentsi eta korritu dadin.

Euskaratik abiatutako hausnarketa da irakurri berri dugun hori, alderdi linguistikoari estuki lotua. Eta badira itzulpenean kontuan izateko hainbat elementu. Batetik, *gorotzaletasun* hitzaren ordaina parentesi artean aipatzen den *latinkadari* estuki lotuta dago gaztelaniaz, katalanez eta frantsesez; hortaz, irtenbide egokiren bat bilatu beharko da hizkuntza bakoitzean. Bestetik, *zeinek nahi ditu latin-kadak euskararen kakari-kaka-deitzeko-gaitasun paregabea izanik* esaldiarekin ere zer egin pentsatu behar da. Izan ere, mintegian aipatu genuen moduan, erabaki behar dugu protagonistak euskara aipatzen duenean euskara utziko ote den, ala xede hizkuntzari egin beharko zitzaion erreferentzia. Honako hauek izan ziren itzultzaileek harturiko behin betiko erabakiak:

[ES] *pero quién quiere latinajos si la lengua nos permite llamar a la mierda mierda*

[CA] *qui vol llatinismes quan la nostra llengua té aquesta capacitat de dir-merda-a-la-merda*

[FR] *qui voudrait employer ces mots savants quand nous avons dans notre langue la possibilité de désigner la merde par le mot merde*

Idazle-itzultzailea bere testuaren aurrean

Idazle-itzultzailearen autoitzulpen esperientzia aberasgarria izan da. Mintegiaren hasieratik esana zigun berak egitako lanketa ariketa soil bat izango zela. Hau da, ez zuela helburu autoitzulpen prozesuan sorturiko emaitza behin betiko testu izaterik; argitaratuko zen bertsiorik sortzeko asmorik ez zuela, alegia. Alabaina, itzultzaile formazioa izanik, testua bere eskuz itzultzeko ariketa lagungarri izango zitzaioala iritzi zuen mintegian itzultzaileek egin ziezazkioketen galderei erantzuteko.

Autoitzultzaile larruan arituta eta gaztelaniarako bigarren itzulpena landuta mintegian, garbi utzi du gaztelaniarako itzulpena Iriarteren ardura dela, berak ez zuela baldintzatuko azken emaitza. Hori bai, izan zen bien arteko elkarlanik, bai eta neurri apalago batean mintegiko gainerako partaideona ere, gaztelaniadun hitzun garen aldetik, azken emaitza ahalik eta egokiena izan zedin.

Idazle gisa, oso garbi du Sarriugarrek zer nahi duen eta zer ez, zer efektu bilatzen duen testuarekin. Esango nuke erabaki arbitrario gutxi egin dituela liburua idaztean. Guztia ongi baino hobeki pentsatua eta landua izan duela. Hori horrela izanik, itzulpenak ere xehe-xehe landu genituen mintegian, hitz hautaketa konkrituak eztabaidatuz, batarren eta bestearen efektuak neurtuz eta emaitzak baloratu, itzulpenak jatorrizkoa bezain hausnartuak eta landuak izan zitezten.

Besteren lanen itzultzaile aritzera ohitua izaki —dena kuestionatzera ohituta egoteak, hain zuzen ere— asko lagundu zuen mintegian. Esango nuke idazkera nola planteatzen duen erakusten duela Sarriugarteren jarrerak; izan ere, hitz jakin baten edo hitz multzo baten bilaketa zehatza

egiten du, asko lantzen du hitz bakoitzaren hautaketa, non kokatuko den erabakitzen du, eta zer efektu estetiko izango duen. Azken batean, lehen aipatu dugunez, formaren eta edukiaren arteko oreka bilatzen du.

Edukiaren eta formaren arteko loturak idazlearentzat duen garrantzia azpimarratu nahi nuke, amaitu aurretik. Eta horren erakusle dugu generoaren eztabaidaren inguruan irtenbide behin betikorik topatzeko ezintasuna. *Erraiak* eleberria osorik itzuliko balitz gaztelaniara, katalanera edo frantsesera, idazleak aktiboki hartu beharko luke parte testuaren itzulpenean. Euskarazko testuak planteatzen ez dituen arazoak baitaude hizkuntza erromaniko batean. Ikuspegi feministan sakontzea ezinbestekoa da auziari heltzeko, eta diskurtso feministak hizkuntza horien idazketa ereduak iraultzeko egiten ari diren lana kontuan izan beharko da, eleberriaren edukia eta forma bat etor daitezten. Euskarazko irakurleari eskatzen ez dion irakurketa aktiboa eskatuko liokeela iruditzen zait aipaturiko hiru hizkuntzetako irakurleei, formari dagokionez behintzat. Eta, forma eta edukia dena bat datozenez, irakurtzen denaren kontzientzia pizteko modua ere aldatu egingo litzateke.

Erraiak

(lehen atala)

Danele Sarriugarte

Danele Sarriugarte Mochales. Itzulpengintza eta Interpretazioan lizentziatua UPV/EHUn, literatura ikasketekin lotutako masterra egin du Bartzelonan. 2012tik *elearazi* itzulpen bloga kudeatu zuen Garazi Arrularekin batera. Prentsarekin kolaboratzen du, batez ere *Argia*, *Hitzen Uberan* atarian eta *Berria* komunikabideetan. Angela Davisen, David Foster Wallacen eta Audre Lorde-ren lanak euskaratu ditu. Gaur egun, itzulpengintzan eta idazketan dihardu gehienbat, freelance modura.

0

Onomatopeiek hartu dute apartamentua, plok-plok-plok eta tik-tak, komunean itxi ezin den txorrota eta sukaldeko horman zintzilikatutako erlojua hurrenez hurren, bata bestearen atzetik tantaka baina egundo bat egiteko esperantzarik gabe.

Hausturaren sinfonia.

Etxe honetan gehien maite dudan objektu finkoan nago eserita, larruzko besaulki marroian; komunetik korrika, edo, zehazkiago, erdi-korrika erdi-saltoka eta neure buruari ahapeka, etxean bakarrik gaudenetan, lasterka egiteko dugun modu zehatz horretan hona gora ailegatu eta jauzi egin ostean, oinak ipurdiaren azpian bildu ditut agudo epeltasun apur bat lortze aldera, komuneko kanila madarikatuaren zarata itotzen saiatzera joan naizenean luzeegi ukitu dutelako elkar oinazpiek eta zeramikazko lauzek eta azazkaletaraino sartu zaidalako hotza. Postura erosoaren bila, apaltzen doaz azalak larruaren aurka igurztearen bentosa moduko zarata gogaikarriak, larru marroia eta biok geruza bakar bat bilakatzen garen arte, gero marka gorri desatseginak lagako dizkidan batasuna, batik bat ipurdi azpiko izterren inguruan.

Asteburu luze batetik iritsi berri naiz, sortzen ikusi ninduen herritik ontzen lagundu nauen hirira, eta mahai gainean izkiriaturik aurkitu ditudan agur hitzei tinko

beha nago, azkenengo ikasturtean egunerokotasun arruntenean nozitu nauen gizonaren eskumutur iletsu, sendo eta dardartiak berridatzi ditu, talde mitiko bati ostu: maitia lehen baino lehen aska gaitezan.

Zuhurtziaz nire lan-mahaiko tiradera gertagaitzenezan ezkutatutako liburuaren barrenak erabili ditu madarika-tuak, nik neuk tolestutako orrialde batean, nik neuk azpimarratutako esaldi baten azpian itsatsi du post-it kriminala:

Baina nork eta ahulak jakin behar din indartsua izaten eta alde egiten, indartsua ahulari kalte egiteko ahulegia denean.

Ongi gogoan dut Z-ri esaldia aipatu nionekoa, duela ez asko Saizarbitoriaren *Martuteneren* irakurketaren harira, Martin ere mintzo baita Kunderaren aipu horretaz baina etsita onartuz ez duela akorduan idazlearen izena. Harro-harro kontatu nion Z-ri, neuk bai, neuk banekiela norena zen, aspaldidanik darabildan markaketa- eta aipusistemari esker. Besaulkian eserarazi eta begietan sartu nion orrialdea, garaile, maistra pedanteen erara, betaurrekoak apur bat beheratuta, kordel eta guzti.

Lañoa ni. Bota nuenean gibel-asmorik batere ez nuen arren, Z-rentzat probokazio hutsa izan zen, herrestan eroan gintuena hitz gordinetara eta lehia makurrenera, bakoitzaren krudeltasunerako gaitasunaren neurketa dialektikora, nor-nork gehiago, zekenago, zikinago mindu, nork-nori hatza zaurian barneren eta bortitzen sartu.

Z-k bidaia zuen biharamunean eta muturtuta egin zuen alde, baina itzultzean zango-besoak zabalik joan nintzaion bila, amoros. Ez nuen nahi, baina errudun sentitzen nintzen eta ezer gertatu ez bailitzan ekiten saiatu nintzen,

are, parez pare zabaldu nion nire amodiozko artilleria astu-
 nena, baina ezarian bezala, ez zezan nabaritu, ez ziezadan
 enegarrenez aurpegiratu hainbesteko koplarik gabe bar-
 kamena eskatzeko eta damua erakusteko berezkoa dudan
 ezintasuna. Berak betikoa zirudien, azpimarra dezadan az-
 ken horren garrantzia, zi-ru-di-en, eta lurperatutzat jo nuen
 kontua.

Gaurdaino.

Madarikatua.

Madarikatua, madarikatua, madarikatua.

Zer esan behar diet nik orain nire epaile guztiei, nire
 juje zorrotzei: gurasoei, kuadrillakoei, herriko besteei;
 zer aitortu behar diet, atzera itzuli naizela singletasunera,
 ez dena inoiz urrezkoa izango gizonaekoena bezala, ezta
 konbentzimenduzkoa ere fededun batzuen bezala, ezpa-
 da patetikoa, penagarria, urrikalmendu-sortzailea; hogeita
 hamargarrenerantz atergabe gerturatzen dihardudan ho-
 netan oraindik ez naizelako gai izan gizonik arrantzatu eta
 akabatzeke, nire bularren uztarrira kate motzean lotzeko;
 atzera itzuli naizela ez-emakumeen lurraldera, zakilik gabe-
 ko alu osatugabea naizela, mutxurdina.

Eta zein eramango dut derrigorrezko familia-
 otorduetara, debekaturik daude-eta zifra bakoitiak, soi-
 lik umeak barnean hartzen dituzten multzoen kasuan dira
 hiruak zilegi baina hor ere gero eta gutxiago (noizko biko-
 tetxoa?); eta alargunen kasuan agian bata, baina hor ere
 gero eta gutxiago, bestela begiratu dibortziatuen aurreka-
 rriari, horiei kasik ofizialki debekatu diete jada axaleko ba-
 kartasuna, behin ezkontidearen uhaletik libratu direnean,
 baimena dute tarte batez aske arnasa hartzeko, baina ez
 luzaroei, asko jota urtebetea joan denean izan bitez post-

modernoak eta liberatuak, jauzi egin bezate ohez ohe, eguberrian hurbil bedi mahaira garaian garaiko amorantea.

Noizbait gertuko iragan ahazturen batean gai izan nintzen agian, baina gaur egun jada ezin diet bakarka, giza ezkuturik gabe aurre egin ospakizun izendatu ohi diren gisako sakrifizio-festei.

Eta bake sainduan lagata ninduten kuadrillakoek eta osaba-izebek azken bi urteotan, ordura arte ikusten nindutenero jasanarazten zizkidaten moduko nagusitasunezko erruki-begiradarik gabe, ez nuelako hipotekaren iruzurra norekin konpartitu, ez nuelako soldatapeko esklabotzaren alienaziotik urrun baimentzen zitzaizkidan urteroko bi opor-aste miserableak norekin xahutu paradisuazko hairetan etzanda argazkiak eginez facebookeko azal-orrian sitsek jandako zoriontasun bat antzestu ahal izateko, ez nuelako halabeharrez astean behin edo birritan zakilkatuko ninduenik kaleetatik paseatzean apaingarri gisa jantzi nezakeen ume-panpina batez erditzea lortu arte.

Gutun bat laga du liburuaren ondoan. Buruz dakit zer dioen azala zabaldu ez badut ere, eta errekontza prozesua ikuskatzen dut, zelan bilakatzen den tinta txinpart nire pizgailuaren mende, urdinetik horira, laranja, gorrira, hizkuntzaren baliabideak zurrunegiak diren arren kolore hauek sor dezaketen lilura adierazten saiatzen hasteko ere. Piromanoekin bat egiten dut segundo batez. Montag naiz, *It was a pleasure to burn. It was a special pleasure to see things eaten, to see things blackened and changed.*

Z-ren justifikazio entsegua errauts bihurtu izanak boteretsu sentiarazten nau.

Burua apur bat goratu eta hozkailuan itsatsita beste post-it bat ikus dezaket, Z-k dio hilabete honetako erren-

taren bere zatia jada sartuta dagoela Jabeen kontuan, lasai egon naitekeela diruagatik, epe laburrean behintzat. Giltzak sarreran laga dituela. Horretaz jabetu naiz, egia esan, atea zabaldu bezain laster nabaritu dut Ikeako mahaitxoan zeutzala, bazkaltzera anaiarengana joandako Z-ren patrikan behar zutenean; kontzientzia-une ezin laburragoa izanda, zerbaitek nire adimenaren erraietatik nolabait adierazi nahi izan dit detaileari erreparatu behar niola.

